

## BEZAREN BEREHALAKO INFORMAZIO HORNIDURA (BIH)

### Sarrera

2018ko urtarrilaren 1ean Arabako Foru Ogasunak BEZa kudeatzeko sistema berria ezarri du; sistemaren oinarria informazioa berehala ematea da.

Dokumentu honetan sistema berriaren funtsezko ezaugarri batzuk argitu nahi dira; nolana ere, datozen hiletan informazio gehiago emango da eta araudia aldatu beharko da.

### Zer da BEZaren berehalako informazio hornidura (BIH)?

Sistema honetaz baliatuz, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak arteztu ahal izango dira Arabako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoen bidez, fakturazio erregistroak ia berehala bidaliz, hain zuzen.

### Zergatik ezarriko da berehalako informazio hornidura (BIH)?

Sistema berriaren xedea zergen kontrola hobetzea da. Horrez gainera, baditu onurak zergadunentzat ere: betebeharrak gutxiago edukiko dituzte, ez baitira aurkeztu beharko 347 eta 340 ereduak.

### Noiz ezarriko da BIH Araban?

2018ko urtarrilaren 1ean abiatu da, eta prest dago nahitaez erabili behar duten subjektu pasiboentzat zein beren borondatez erabiltzea hautatzen dutenentzat.

### BEZaren subjektu pasibo guztiek erabili behar dute?

BIH sistema berria nahitaez erabili behar dute gaur egun BEZaren autolikidazioa hilerok aurkeztu behar duten subjektu pasiboek; honako hauek dira:

- Hileroko Itzulketen Erregistroan inskribatuta daudenak.
- Enpresa handiak (6 milioi € baino gehiago fakturatzen dituztenak).
- BEZaren taldeen araubide berezian dauden enpresak.

Horrez gainera, subjektu pasiboek beren borondatez erabaki ahal izango dute sistema berria erabiltzea; horren aldeko hautapena errolda eredu egokian adierazi beharko dute.

### Arabako Foru Ogasunarekin BIH erabili behar duten subjektu pasiboak

BIH erabili behar duten subjektu pasiboek fakturazio erregistroak aurkeztu behar dizkiote Arabako Foru Ogasunari honako kasu hauetan: ikuskatzeko eskumena Arabako Foru Ogasunak daukan enpresaburuak edo profesionalak izanez gero; beraz, honako hauek dira:

- 1) Subjektu pasiboak Araban dauka zerga egoitza eta aurreko urtean egindako eragiketen bolumena ez da izan 10 MM €-tik gorakoa.
- 2) Subjektu pasiboaren zerga egoitza Araban dago, aurreko urtean egindako eragiketen bolumena 10 MM € baino gehiago izan da eta, gainera, Araban eragiketaren bat egin du eta lurralde erkidean egindako eragiketak % 75 baino gutxiago izan dira.
- 3) Subjektu pasiboaren zerga-egoitza Bizkaian edo Gipuzkoan egonez gero, ikuskapena kasu hauetan abiaraziko da: zergadunaren eragiketa bolumena, aurreko ekitaldian, 10 MM € baino gehiago izan bada eta ekitaldi horretako eragiketa bolumenaren %75 gutxienez lurralde erkidean egin ez badu eta, gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan egindako eragiketa guztiak Araban egin baditu (edo Araban eta zerga-egoitzarik ez duen beste lurralde historiko batean egin baditu, haien eragiketa bolumenaren proportziorik handiena Araban egin badu).
- 4) Subjektu pasiboaren zerga helbidea lurralde erkidean badago eta aurreko urteko eragiketa bolumena 10 MM € baino handiagoa izan denean, beti ere Euskal Autonomi Erkidegoan egindako eragiketa bolumena %75 ekoa edo gehiagokoa bada (Entitate Taldearen Araubide Berezia daudenak %100) eta Euskal Autonomi Erkidegoan egiten diren eragiketen bolumen osoaren gehiengoa Araban egiten baditu.

### **BIH sistemaren funtzionamenduaren oinarriak**

Sistema honi heltzen dioten subjektu pasiboek Arabako Foru Ogasunaren zerbitzu telematikoaren bidez arteztu beharko dituzte BEZaren araudian ezartzen diren erregistro liburuak:

- Egindako fakturen erregistro liburua.
- Jasotako fakturen erregistro liburua.
- Inbertsio ondasunen erregistro liburua.
- Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egindako eragiketa jakin batzuen erregistro liburua.

Horretarako, fakturazioaren xehetasunak bidali behar dizkiote Arabako Foru Aldundiari; informazio horrekin erregistro liburuak ia bertatik bertara arteztuko dira.

Informazioa baliabide elektronikoez baliatuz bidaliko da, XML mezuen trukean oinarritutako web zerbitzuen bidez, hain zuzen.

Informazioa foru agindu batek onartuko dituen erregistro eremuetan ezarri beharko da.

### **Fakturei buruzko informazioa bidaltzea**

Kontua ez da fakturak baliabide elektronikoez baliatuz bidaltzea, baizik eta fakturazio erregistroetako datuak bidaltzea (onartzeko dagoen foru agindu batean zehaztuko da zer datu bidali beharko den).

### **Noiz bidali behar zaizkio fakturazio erregistroak Arabako Foru Ogasunari?**

Epealdi hauek ezarri dira:

#### **A) Egindako fakturak**

Lau egun natural faktura egiten denetik, honako kasu honetan izan ezik: faktura jasotzaileak edo hirugarren batek egiten badu, epealdia zortzi egun naturalekoa izango da. Batera zein bestera, erregistratu beharreko eragiketaren zerga karga sortzen den hilaren hurrengo hilaren 16a baino lehen egin bidali behar da informazioa.

#### **B) Jasotako fakturak**

Lau egun natural faktura kontabilitatean erregistratzen denetik, eta nahitaez eragiketak sartzen diren likidazioaren aldia amaitu ondoko hilaren 16a baino lehen.

#### **C) Europar Batasuneko beste herrialde batzuetan egindako eragiketa jakin batzuk**

Lau egun natural ondasunen bidalketa edo garraioa hasten denetik edo, bestela, haiek jasotzen direnetik.


#### **D) Inbertsio ondasunei buruzko informazioa**

Urteko azken likidazioa aurkezteko epealdiaren barruan (urtarrilaren 30a arte).

## Gaur egun BEZaren erregistro liburueta ezartzen den informazio bera bidali behar da?


Ez, gaur egun bi tokitan (erregistro liburuak eta fakturak) biltzen diren datu jakin batzuk bidali behar dira Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikora. Gainera, zergetarako garrantzia duten datu batzuk ere eman behar dira, orain arte 340 eta 347 eredueta adierazten izan direnak, alegia.

### BIH sistemaren bidez bidali beharreko informazioa




Egindako fakturen erregistro liburuko informazio hau helarazi behar zaio AFari BIH sistema berriaren bidez (egungo erregistro liburuetan zein fakturretan agertzen dena):

## BIH sistemaren bidez bidali beharreko informazioa ■■■



Beste alde batetik, jasotako fakturen erregistro liburuko informazio hau helarazi behar zaio AFari BIH sistema berriaren bidez (egungo erregistro liburuetan zein fakturretan agertzen dena):

## BIH sistemaren bidez bidali beharreko informazioa



**BIHren araudia**

Foru Gobernu Kontseiluaren 56/2017 Foru Dekretua, abenduaren 5ekoa, zenbait zerga araudi aldatzea, balio erantsiaren gaineko zergan informazioa berehala hornitzea gehitzeko.

703/2017 Foru Agindua, abenduaren 26koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena, balio erantsiaren gaineko zergaren erregistro liburuak Arabako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez artezteko arauak eta zehaztapen teknikoak ezartzen dituena.

Aldaketak egiteko arauak Arabako Foru Aldundiaren web orrian argitaratu dira.